

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAPUEBLA DE LABARCAKO UDALA

Balizko interesdunak 604/2018-B administrazioarekiko auzi errekurtsu arruntean agertzeko epatzea

Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legeak 49.1 artikuluan xedatutakoa betez, argitaratzen da ezen administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu dela eta espedientea Gasteizko administrazioarekiko auzietarako 1 epaitegira bidali dela, 604/208-B administrazioarekiko auzi errekurtsuan (prozedura laburtua), zeina Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak jarria baita Lapuebla de Labarca alkatearen 2018ko irailaren 11ko ebazpen baten aurka. Ebazpen horrek, hain zuzen ere, ezetzi egiten zuen Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak Camino del Soto kalea urbanizatzeko laguntza teknikoa, proiektuaren idazketa, obren zuzendaritza eta beste lan batzuk kontratatzeko lehiaketa publikoaren agiri eta deialdiaren aurka jarritako berraztertze errekurtsua.

Ohartarazten da iragarki honen bidez epatu egiten dela prozeduran interesa izan dezakeen oro, autoetan agertu eta pertsonatu dadin. Horretarako, bederatzi egun izango dituzte interesdunek, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Lapuebla de Labarca, 2018ko abenduaren 10a

Alkatea

MAIDER MURILLO TREVIÑO